

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 161/2018 Foru Agindua, martxoaren 9koa, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren 2017ko ekitaldiko aitortpenak aurkezteko arauak eta modalitateak onartzen dituena

Azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, 102.7 artikuluan xedatutakoaren arabera, "autolikidazio ereduak eta autolikidazio modalitate erraztu edo berezien erabilera Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak onartuko ditu. Era berean, foru diputatu horrek finkatuko ditu aurkezteko modu eta epeak nahiz euskarri telematikoen bitartez autolikidazioak aurkezteko egoerak eta baldintzak".

Bestalde, martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauak, ondarearen gaineko zergarenak, 36. artikulua-ren Bat paragrafoan ezartzen duenez, subjektu pasiboak behartuta daude Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak ezarritako leku, modu eta epeak errespetatuz autolikidazioa aurkeztera eta, hala badagokio, zerga zorrak ordaintzera.

Aurki hasiko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren 2017ko ekitaldiko aitortpenak aurkezteko epea.

Hori dela eta, besteak beste, aitortpen modalitateak, aitortpenak aurkezteko epea eta lekuak arautu behar dira.

Xedapen hau da tresnarik egokiena helburu horiek lortzeko. Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen horrekin bete nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Proposatutako xederako ez dago neurririk eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileari betebehar gutxiago jartzen dizkionik.

Ekimen honek bermatu egiten du segurtasun juridikoaren printzipioa eta koherentea da ordenamendu juridikoarekin, Estatukoarekin zein Europar Batasunekoarekin.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 129. artikuluan arautzen baitu.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen arautegi organikoak 3. artikulua-ren hirugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da aginduzkoa.

Aztertu da Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren inguruan emandako txostena eta Zerga Araudiaren Zerbitzuak zerga eraginari buruz emandako txostena.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitortpen modalitateak

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenak sistema hauen bidez aurkez daitezke:

A) "rentafácil"

1. Arabako Foru Aldundiak zenbait zergaduni bidaltzen dizkien autolikidazio proposamenak dira. Haiek autolikidazioaren balio juridikoa izango dute, zergadunak proposamen horrekin ados

dagoela adierazten duen unean. Hark ados dagoela adierazi eta gero, itzulketa egingo da edo, hala badagokio, ateratzen den kuota helbideratuko da.

2. Zergadunak, horretarako emandako epearen barruan, ez badu adierazten jasotako proposamenarekin ados dagoela, administrazio jarduna egin gabekotzat emango da eta zergadunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkeztu beharko du, horretara beharturik badago, gainerako sistemetako baten bitartez.

B) "rentared"

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena egiteko Arabako Foru Aldundiak prestatutako laguntza programa erabiliz zergadunek egindako aitortpenak dira. Aitortpen horiek Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez (www.araba.eus) bidaltzen dira.

C) "rent@raba"

1. "rent@raba" pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenak egiteko zerbitzu bat da, Arabako Foru Aldundiaren ogasun bulegoen bidez eta entitate laguntzaile baimenduen bidez ematen zaiena zenbait baldintza betetzen dituzten zergadunei.

Arabako Foru Aldundiaren aurrean kreditatutako kudeatze eta aholkularitza agentziek sistema honen bidez aurkez ditzakete zergadunen aitortpenak.

2. Zerbitzu hau doan emango zaie Arabako Foru Aldundiaren ogasun bulegoetan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadun guztiei, salbu eta kasu hauetakoren batean daudenei:

- a) Jarduera ekonomiko bat egiten dutenak.
- b) 2017ko ekitaldian ohiko etxebizitza eskualdatu dutenak.
- c) 2017ko ekitaldian balio higikorren edo higiezin salmentako hiru eragiketa baino gehiago egin dituztenek.

D) "autorenta"

1. Aitortpen modalitate hau pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena aurkeztu beharrean dauden zergadunei aplikatuko zaie, baldin eta paragrafo honetako aurreko letretan aurreikusitako aurkezpen sistemak erabiltzen ez badituzte.

2. Programa aitortpenaren bidez aurkeztuko dira "autorenta" sistemaren bidez aurkeztu beharreko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpenak.

3. Programa aitortpenak dira pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitortpena egiteko Arabako Foru Aldundiak prestatutako laguntza programa erabiliz zergadunek egindako aitortpenak.

Prozedura honen bidez egindako aitortpenak aurkezteko dokumentuak, behin laguntza programaren bidez inprimaturik, Foru Agindu honen 5. artikuluan aipatzen diren lekuetako edozeinetan aurkeztu beharko dira.

Bi. Ondarearen gaineko zerga.

1. Ondarearen gaineko zergaren aitortpena bide hauetatik aurkez daiteke:

- Internet.
- Programa aitortpenak.

2. Interneten bidezko aitortpenak dira laguntza programa erabilia zergadunek eta Arabako Foru Aldundiaren aurrean kreditatutako kudeatze eta aholkularitza agentziek egin eta egoitza elektronikoaren bidez (www.araba.eus) bidalitakoak.

3. Programa aitorenak: Arabako Foru Aldundiak Ondarearen gaineko Zerga dela-eta sortutako laguntza programa erabiliz egindakoak.

Prozedura honen bidez egindako aitorenak, behin inprimaturik, Foru Agindu honen 5. artikuluan aipatzen diren lekuetako edozeinetan aurkeztu behar dira.

Hiru. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorenak, "rent@raba" modalitatearen bidez aurkeztean (aitorenak gestoria edo aholkularitza batean egiten direnean, eta hark ez badihardu zergadunaren borondatezko ordezkari gisa, edo finantza entitate laguntzaile batean egiten direnean), eta ondarearen gaineko zergaren aitorenak, programa-aitorenen modalitatearen bidez egiten direnean, nahitaezko identifikazio etiketarekin aurkeztu behar dira, Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 19ko 99/1996 Foru Dekretuaren 4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

2. artikulua. Laguntza programen banaketa eta salmenta

Aurreko paragrafoan aipatutako laguntza programak www.araba.eus helbidean deskarga daitezke.

3. artikulua. Frogagiriak

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitorenekin batera, zergadunen zerga datuetan jaso gabe egonik edo jasota daudenetik ezberdinak izanik aplikatzekoak diren frogagiriak aurkeztuko dira, aitorenean agertu behar diren mota guztietako eragiketa, errenta, gastu, diru sarrera, murrizketa eta kenkarien arabera.

Arabako Foru Aldundiak kreditatutako kudeatze eta aholkularitza agentziek rent@raba programaren bidez egindako aitorenei erantsitako frogagiriak telematikoki aurkeztuko dira aitorenarekin batera.

4. artikulua. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren 2017ko ekitaldiko aitorenak aurkezteko epea

Bat. Hona hemen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren 2017ko ekitaldiko aitorenak aurkezteko epeak:

1. "rentafácil":

Zergadunei bidalitako aitoren proposamenak 2018ko apirilaren 9tik ekainaren 14ra baieztatu eta aldatu ahal izango dira.

2. "rent@raba" eta ondarearen gaineko zergaren aitorenak-Internet, Arabako Foru Aldundiaren aurrean kreditatutako kudeatze eta aholkularitza agentzien bidez:

2.1 "rent@raba"

– Hasiera eguna:

a) Foru Ogasunaren bulegoetan: 2018ko apirilaren 11.

– Finantza erakunde laguntzaileetan, eta Arabako Foru Aldundiaren aurrean kreditatutako kudeatze eta aholkularitza agentzien bidez: 2018ko apirilaren 20a. Amaiera eguna:

a) Finantza entitate laguntzaileetan: 2018ko ekainaren 14a.

b) Foru Ogasunaren bulegoetan: 2018ko ekainaren 20a.

b) Arabako Foru Aldundiaren aurrean kreditatutako kudeatze eta aholkularitza agentzien bidez: 2018ko ekainaren 25a.

2.2 Ondarearen gaineko zergaren aitorenak-Internet,

Arabako Foru Aldundiaren aurrean kreditatutako kudeatze eta aholkularitza agentzien bidez.

– Hasiera eguna: 2018ko apirilaren 20a.

– Amaiera eguna: 2018ko ekainaren 25a.

3. "rentared" eta ondarearen gaineko zergaren aitortpenak-Internet, banakoek bidalitakoak:

- Hasiera eguna: 2018ko apirilaren 9a.
- Amaiera eguna: 2018ko ekainaren 25a.

4. "autorenta" eta ondarearen gaineko zerga, programa aitortpenen modalitatean:

- Hasiera eguna: 2018ko apirilaren 20a.
- Amaiera eguna: 2018ko ekainaren 25a.

Bi. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren zergadunek programa aitortpenen modalitatea erabiltzen badute, aitortpena aurkeztean autolikidazioa egin behar dute eta, hala badagokio, horren emaitzako zenbatekoa ordaindu, hurrengo artikuluetan ezarritako prozeduraren arabera.

Beste aurkezpen modalitateak erabiliz gero, zergadunek beraien aitortpenetan adierazitako kontuetan helbideratuko dira kuotak, rentaraba eta rentared modalitateetan diru sarrera ordainketa pasabidearen bitartez edo ordainketa gutunaren bidez egiten bada izan ezik.

5. artikulua. Aitortpenak aurkezteko lekuak

Bat. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitortpenak, "autorenta" modalitatean, eta ondarearen gaineko zergaren programa aitortpenak hemen aurkez daitezke:

A) Emaizta dirua ordaindu beharra bada:

1. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 27ko 26/1996 Foru Dekretuak, finantza, zerga eta antzeko eragiketetan, Arabako Foru Aldundiaren eta erakunde laguntzaileen arteko harremana arautzen duenak, xedatutakoaren arabera erakunde laguntzaile diren finantza erakundeetan, zergadunak hautatzen badu diru sarrera entitate laguntzailean egitea ordainketa gutunaren bidez.

Agiriaren kopia sinatua itzuliko zaio aurkezten duenari, interesdunarentzat.

2. Arabako Foru Aldundiaren bulegoetan, foru aldundiaren alde egindako diru sarreraren frogagiriarekin batera.

Agiriaren kopia sinatua itzuliko zaio aurkezten duenari, interesdunarentzat.

3. Ohiko posta edo posta ziurtatu bidez, Arabako Foru Aldundiari egindako ordainketaren ordainagiriarekin batera. Horiekin batera laguntza programaren bidez inprimatutako aitortpen agiriaren administrazioarentzako alea, gorago aipatutakoa, ere bidaliko da.

A) Aitortpenen emaitza itzultzekoa edo deuseza denean:

1. Arabako Foru Aldundiaren bulegoetan.

Aitortpena aurkezteko dokumentuaren kopia zigilatua itzuliko zaio aurkezten duenari, interesdunarentzat.

2. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 27ko 26/1996 Foru Dekretuak, finantza, zerga eta antzeko eragiketetan, Arabako Foru Aldundiaren eta entitate laguntzaileen arteko harremana arautzen duenak, xedatutakoaren arabera erakunde laguntzaile diren finantza erakundeetan.

3. Ohiko posta edo posta ziurtatu bidez, laguntza programaren bidez inprimatutako aitortpen agiriaren administrazioarentzako alea barne.

Bi. Aurreko Bat paragrafoak xedatutakoa ez zaie aplikatuko "rentafacil", "rentared" eta "rent@araba" modalitateen bidez egindako aitortpenei, ez eta ondarearen gaineko zergaren aitortpenak-Internet modalitatearen bidez egindakoei ere.

6. artikulua

Bat. Abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudia onartzen duenak, 71.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, zerga horren autolikidazioaren zenbatekoa bi alditan ordain daiteke, inolako interesik eta errekaririk gabe:

a) Lehenengoa, haren zenbatekoaren ehuneko 60koa, autolikidazioa aurkezteko garaian, helbideratutako kuotak izan ezik. Horiek 2017ko ekainaren 25ean ordainduko dira.

b) Bigarrena, gainerako ehuneko 40a, 2018ko azaroaren 12an.

c) Lehen zatia ordaintzen ez bada ezarritako egunean, zor den kopuru osoa bilduko da betearazpen bidean, Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 165.1 b) eta 165.3 artikuluetan ezartzen denarekin bat etorriz.

Bi. Aitorpena foru agindu honen 4. artikuluan ezarritako epea errespetatu gabe aurkezten duten zergadunei eta autolikidazio osagarriei ez zaie zatikapen hori aplikatuko.

Hiru. Ondarearen gaineko zergaren zenbatekoa oso-osorik sartu behar da aitorpena aurkezten den unean, helbideratutako kuotak izan ezik. Haiek 2018ko ekainaren 25ean ordainduko dira.

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu honetako xedapenak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko dira indarrean, eta 2017ko ekitaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren aitorpenei aplikatuko zaizkie.

Gasteiz, 2018ko martxoaren 9a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria
TERESA VIGURI MARTÍNEZ